

Betiko tradizioa, ohitura eta ekimenak, arduradun berriarekin

[ASTIGARRAGA](#)

Kronika - Erredakzioa 2024ko urt. 27a, 00:00



Izango dira 100 urte baino gehiago, Joxe Mari Urreagak Gurutzeta baserria sagardogintzara lotu zuenetik.

Geroztik, beste hiru belaunaldi paseak dira bertatik eta juxtu laugarren ordezkaria, Joxe Angel Goñi, aurten jubilatzen da. Hori dela eta, Gurutzeta sagardotegiaren etorkizuna bermatze aldera, arduradun berria azaldu zaigu: Agustin Etxeberria. Hau ere sagardoari lotua eta ibilbide luze eta oparoa duena.

Beraz, betiko tradizioari eutsiko dio Gurutzetak, betiko ohitura eta ekimenak aurrera eramanez.

Dakizuenetz, 2023ko uzta prest daukagu kupeletan, eta botiletan sartu bitartean, txotxetik dastatu eta edateko aukera izango duzue gaurtik maiatzera bitartean. Esan dezakegu aurtengo sagardoak iazkoak baino argiagoak eta lurrintsuagoak direla, eta edan errazagoak.

Bestalde, denok dakigun modura, sagardotegiak tradizio gordeleku ere izan ohi dira, eta kanturako joera ezaguna izan da sagardozailearen aldetik, nahiz eta gaur egun ohitura hori erdi galdua den.

Gure aldetik, urte askotan egin dugun antzera, aurten ere, «Asteazkena Kantuz» ekimena abian jarriko dugu; hau da, asteazkenero otxote bat jarriko dugu kantuan, otsailaren 7tik aurrera.

Jakin ezazue, azkenik, egunero irekita izango duzuela Gurutzeta, astelehenetik igandera, eta betiko menuaz aparte, beganoentzat ere jarriko dugula aukera.

Hala ere, amaitu aurretik, Joxe Angelek bere esker ona adierazi nahi die, urte guzti hauetan, Gurutzetatik pasa diren bezero, bixitari eta lagun guztiei.



Egunero irekita, astelehenetik igande eguerdira arte. Astelehen eta asteartetan gauetan bakarrik.

Irekiera orduak, 13:30etan itxiera 17.30etan eta, gauean irekiera 20.00etan itxiera 24.00etan

Otxoteen jarduna otsailaren 7tik martxoaren 27ra arte.

Betiko menua (txorixoa, bakailo tortila, bakailo frijitua piper berdeekin, txuleta eta postrea: gazta, intxaurrak eta sagar dultzia), dena 42€tan.

Menu «lasaia»: txorixoa, bakailo tortilla eta txuleta eta betiko postrea, dena 32€. Menu hau, astelehen, astearte eta ostegun gauetan eta asteazken, ostegun eta ostiral eguerditan.

Egunero menu beganoaren aukera 42€tan.

[Ekonomia Astigarraga](#)

Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikakide gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta profesional bat garatu nahi badugu.

Egin zaitez KronikaKide!

Erantzun ▼



asteburutik



Elkarren harresegarren ilustrazio eta ipuln lehiaketa martxan da.



Zenbait argibide terrazen ordenantzaren inguruan, Udalak



Behemendiren lehiaketa Plaza Berri

Ikusienak



[Kontzertua eta bazkaria, martxoaren 8an](#)

Kronika - Erredakzioa

ots 07, 00:00

[Hernani](#)



[Atsegindegiko Torneoan jokatzen zuen Arnasa taldeak, 40. urteurrena ospatu zuen bazkari batekin](#)

Kronika - Erredakzioa

ots 06

[Hernani](#)



[Luis Llopis Portugal 'Hernaniar Bikaina' izendatu du Xalaparta Elkartek](#)

Kronika - Erredakzioa

ots 07, 00:00

[Hernani](#)



[Astigarragako Citypaq-a, Gipuzkoako aktiboena](#)

Kronika - Erredakzioa

ots 07, 00:00

[Astigarraga](#)



[Bazkidetza kanpaina martxan, Arraun Elkartek](#)

Kronika - Erredakzioa

ots 07, 00:00

[Hernani](#)



[Kaldereroak Hernanin, 2024](#)

 Ion Azpiazu Goñi

ots 06

[Hernani](#)

Kronika.eus

[Dobera Euskara Elkartea](#)

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · [kronika\[ABILDUA\]kronika.eus](#)



Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARREMANETARAKO](#)

[RSS](#)

 [Gipuzkoako Foru Aldundia](#)

 [Hernaniko Udala](#)

 [Astigarragako Udala](#)

Ereñotzuko

Auzo Udala


GOIZUETAKO UDALA


ARANOKO UDALA



Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#)

[AIKOR](#)

[AIURRI](#)

[ALEA](#)

[AMEZTI](#)

[ANBOTO](#)

[ANTXETA](#)

[ATARIA](#)

[BALEIKE](#)

[BARREN](#)

[BEGITU](#)

[DEUSTUALDEA PREST](#)

[ERLO TELEBISTA](#)

[ERRAN](#)

[EUSKALERRIA IRRATIA](#)

[GEURIA](#)

[GOIENA](#)

[GOIERRI TELEBISTA](#)

[GUAIXE](#)

[HIRUKA](#)

[KARKARA](#)

[KRONIKA](#)

[MAILOPE](#)

[MAXIXATZEN](#)

[NOAUA](#)

[OIZMENDI TELEBISTA](#)

[PLAENTXIA](#)

[TXINTXARRI](#)

[URIOLA](#)

[UZTARRIA](#)

[28 KANALA](#)

[Gurean](#)

[Plazanbazan](#)

[Itap](#)

[Tokikom publizitatea](#)